


SENDOTZEN

EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOKO ENPRESAK INDARTZEN



SENDOTZEN PROGRAMA EKONOPOLOAREN BARRUAN KOKATZEN DA

EKONOPOLOa Bilbao Ekintzak eta REAS Euskadik koordinatzen duten Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Ploa (ESS) da. Bilboko San Frantzisko auzoan kokatua, ESSaren inguruan lan egiten duten hainbat eragileen topagunea da, esperientziak, proiektuak eta baliabideak partekatzeko erreferentziatzko espazioa. Aldi berean, ESSaren bozgorailu eta enpresa-ekimen berrien azeleragailu ere bada.



NORENTZAT?

Ekonomia sozial eta solidarioaren balioekin bat datozen enpresa eta erakundeentzako da, beren arlo ekonomiko-finantzarioa indartzeko, negozio-eredua berrikusteko, lerro berriak irekitzeko, funtzionamendu-modu berriak abian jartzeko, lankidetzeta-proiektuak garatzeko...



PROGRAMA

Programa sei hilean behingo moduletan banatzen da, eta enpresek gehienez 3 modulutan parte hartu ahal izango dute (gehienez urte eta erdi iraungo du). Aldi horren barruan ekitaldi baten urteko plangintza eta plangintzaren ondorengo hiruhilekoko jarraipena sartzen dira. Programa osoko dedikazio-karga txikia da, eta jarduera ekonomiko bat duen erakundearen errealitatera egokituta dago.




NEURRIRA EMANDAKO AHOLKULARITZA

Enpresa bakoitzak 4 orduko aholkularitza du modulu bakoitzean (12 ordu guztira), ESSan espezializatutako aditu batekin. Aditu horrek ekonomia- eta finantza-arloaren eta erakundearen behar espezifikoaren jarraipena egingo du.



NETWORKING-SAIOAK

Programa osoan zehar 3 networking-saio proposatuko dira, EKONOPOLOari lotutako ESSaren ekosistemarekin sartzeko. Espazio horiek programako parte-hartzaileen artean sinergiak sortzeko diseinatuta daude (edizio honetan eta aurrekoetan), bai eta merkatu sozialaren barruan ikusgarritasuna handitzeko ere.



Sendotzen trebakuntza-proposamena zeharka txertatuko da **Ekonopolo Formakuntza - Ekonopoloaren** trebakuntza-programa bateratuan. Ez da eskatuko trebakuntzetara joateko konpromisorik, baina horietako asko oso ondo baloratu dira aurreko edizioetan.

Sendotzen koordinaziotik trebakuntza-ekintzen berri emango dizuegu, eta bereziki baliagarritzat jotzen ditugunak azpimarratuko ditugu.



GUREKIN ONTZIRATU NAHI DUZU?

presstatzen.reaseuskadi.eus



REAS
EUSKADI

EKONOPOLO

